CEDOC
FONS
A. VILADOT

# BATASUNA ETA BURRUKA

## ALDIZKARI LANGILEA

5 pezeta

KOMUNISTEN BATASUNAk ARGITARATUA

# KAPITALISTEN ESPLOTAZIOAREN ETA OPRESIOAREN AURKA, ¡ORGANIZA ZAITEZ KOMISIOETAN (CCOO)

75 gngo HAZILAK

3gn. ALEA

UAB CEDOC

# EDITORIALA

Orain arte ezagutu ez den burrukatasun bat adierazten duten burruka langile eta herrikoiak direla-ta, eta burgesiak orain-esplotatuzepaldapalduen aurka inoz baino indar gehiagorekin aa mintzen dela-ta, eta beti bezala, krisisaren pisu guztia gure-bizkarrera bota nahi duela-ta...

Orain, eta are aurrerantzean, gure indarrak ahal bezain aan do batu behar ditugu, elkartu, gure klaseko adiskideek estatua ren luze-zabalean egindako burrukak buruz eta sakonean ezagutu eta bertan azalduko diren elementu aurrerakoiak ikasi beharko-ditugu.

Hitz batez, gure burruka guztien berriak zabaldu, eta joka-biderik aurrerakoienak batuz, gure esperientziak elkarri jakin arazi.

Gurekin direktoki edo zeharka zerrikusterik duten gertakarie tan egon behar dugula ahaztu gabe, gobernu burges honen infor-mazio-tresnek zabaldu ohi duten gezur eta makurkeriak salatuz.

Hauxe da KOMUNISTEN BATASUNAK (KB) aldizkari honen bidez be-te nahi duen helburua. BATASUNA ETA BURRUKA-ren ale honen bidez, Estatu espainoleko langileriak eta herriak errepresioaren aurka egindako burruken analisisa zabaldu nahi du.

Langileek baturik egin dezakegun burruka bakoitza ezkutatzen eta apurtzen saiatuko da beti burgesia; bere estatuaren apara - tuak lotu-loturik ditu bere informazio-tresnak (aldizkariak, i-rratia, TVE...) eta isilean uzten dute langileriarentzat irakas penen bat ekarri dezaken guztia.

Horregatik, eta gure organizazio -eta batasun - naila jaso -tzeko, gure informabide bereziak behar ditugu, eta informabide-hauek, nahi-ta-ez klandestinoak izan behar dute.

Askatasuna ez da boterearen inguruan dauden batzuren ekintza ezta ere gobernu-aldaketa huts batez lortu ditekeen zerbait, - baizik langile guztien lanaren frutu, burrukaren bidez, ez bes-te ezerren bidez, lortu ditekeen frutua.

UAB
Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General
CEDOC

Aldizkari langileak langileriak espresatzeko duen eskubideaz baliatzeko tresna bat da, eta tresna hau argitaratzeak, zabaltzeak, diskutitzeak, garrantzi aparta du gaurko egunean.

Behar hau bete nahiean, BATASUNA ETA BURRUKA-k langile guztion adierazpena izan nahi du, gure behar guztien morroi zintzoa izan nahi du; hitz batez, langileriak eta herriak esplotazioaren eta zapalketaren aurka daraman burrukaren tresna - teoriko eta praktikoa izan nahi du.

Hauxe da gure asmoa eta bertan lan egitea, fabriken, hauzoen eta herrien partizipazioa, eztabaida eta kritika jasotzea guztiz premiazkoa da.

Gure harmarik hoberena batasuna eta organizazioa dira. Baina , etsaia ahulduz gure burrukak bateratzeko, gure espresio bideetan , ekintzarako iritziak batu behar ditugu, irakaspen aurreratuenak jaso eta zabaldu behar ditugu.

Beraz, BATASUNA ETA BURRUKA, gu indartzeko eta etsaia ahultzeko lehenengo mailako tresna da.

UAB
Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General
CEDOC